

Prentsa oharra

Nota de prensa



Donostiako Udalak kereila bat jarriko du gaur Donostiako instrukzioko epaitegian, 24 udal kasuengatik

Donostiako Udaleko 24 langile eta kargu publiko dira, eta Gerra Zibilaren biktima eta errepresaliatu frankistak izan ziren.

2017. urteaz geroztik, Donostiako Udala eta Aranzadi Zientzia Elkarteak lankidetzan ari dira Gerra Zibilaren eta diktadura frankistaren biktima izan ziren donostiarrei buruzko informazioa bildu eta sistematizatzeko, bai eta, donostiarrek izanda ere, udalerritik kanpo ere errepresaliatu zituztenei buruzko informazioa bildu eta sistematizatzeko ere.

Lan horren ondorioz, Donostia 1936-1945 proiektua sortu zen, memoria historikoa berreskuratzeko eta garai hartan hirian eta/edo donostiarren aurka gertatu zen giza eskubideen urraketen berri emateko.

2020an, Memoria Historikoaren Kontseilu Sektorialaren barruan, lantalde bat eratu zen, artxibo horietan udal-langileen kasuak aztertzeko eta sailkatzeko, eta horietatik zein auzitara eraman zitekeen zehazteko. Lan horren emaitza gisa, txostenak aurkeztu ziren, eta horietan lantaldeak hautatutako 24 kasuren zerrenda jaso zen. Zerrenda horretan, urraketak jasan eta horien ondorioz hil ziren funtzionarioen eta udalbatzako kideen izen-abizenak ageri dira.

2022ko ekainean, Udalak Jacinto Lara Bonilla abokatuaren esku jarri zuen hautatutako kasu horiei buruzko informazioa, Argentinako Errepublikako Buenos Aireseko Krimen eta Zentzagarritasun Federaleko 1. Epaitegi Nazionalaren (Argentinako Errepublika) 4591/2010 Kereilaren autoetan aurkez zezan, dagokion moduan.

Aldi berean, beharrezko izapideekin jarraitu zen, 24 kasu horien inguruko kereila kriminala Donostiako instrukzio epaitegian aurkezteko.

Horretarako, 2022ko abuztuaren 2ko Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen kereila bat jartzea Donostiako epaitegian, erregimen frankistak Udaleko langileen eta kargu publikoen bizitzaren aurka egindako krimenengatik; eta, horrez gain, Aratz Estomba abokatu-bulegoaren laguntza teknikoa kontratatzea. Eskuragarri dagoen informazio guztia bildu ondoren, gaur 24 kasu horien inguruko kereila kriminala jarriko da Donostiako instrukzio epaitegian.

Donostiako alkate Eneko Goiak azpimarratu du kereila aurkeztea «beste pauso bat dela egiaren, justiziaren eta erreparazioaren bidean», hain zuzen ere Donostiako Udalak frankismoaren eta Gerra Zibilaren biktimen inguruan bultzatzen ari den ekimenean. Goiak adierazi du Donostiako udal funtzionario eta langile horien «eskubideak urratu egin zirela» eta bere ustez, Justizia gai izan beharko litzatekeela

Prentsa oharra

Nota de prensa

«haien ohorea eta izen ona lehengoratzeko bideak bilatzeko, baita bidegabekeria bat jasan zutela aitortzeko ere». Alkateak azaldu du kereilaren aurkezpenak «hiriko gehiengo politiko eta sozialaren babes» jaso duela, eta Udalak «bidegabekeria hori jasan zuten biktimen memoria oroitzeko lanean jarraituko duela» defendatu du.

Bestalde, Ane Oyarbide Eskubide Zibiletako zinegotziak azpimarratu du «betebehar morala dugula diktadura frankistaren izua jasan zutenei ohorea itzultzeko eta haien memoria berreskuratzeko». «Fusilatu, espetxeratu, jazarri eta errepresaliatu egin zituzten, eta kitatzeko dauden zorrak kitatzeko garaia da. Hiri gisa, Udal gisa, ezin dugu beste alde batera begira jarraitu, aitzitik, batzuek pasatzen utzi nahi duten garai bat gogoratu behar dugu, baita etapa hartako ondorioak bizi izan zituztenak gogoratu eta ohoratu ere. Izan ere, gizartearen gehiengoak ez dugu gertatutakoa ahazten eta beste alde batera begiratu nahi. Orain, Justiziaren esku dago biktima horien erreparazio moral, politiko eta humanoa egitea».

Donostia 1936 estekadun zerrenda

1.	Abalde García, Ángel
2.	Aramendi Laca, Ignacio
3.	Arrizabalaga Pildain, José
4.	Artola Iraola, Miguel
5.	Ayestarán Giordia, Miguel
6.	Burutaran Ormazabal, Saturio
7.	Catediano Fernandez, Vicente
8.	Eguilegor Zugasti, Ignacio María
9.	Fernández Jauregui, José María
10.	Frechilla Chico, Fulgencio
11.	Iglesias Ansaño, Luis
12.	Isasa Azcue, José
13.	Martirena Recondo, Ceferino
14.	Navalón Ruiz, Cirilo
15.	Peñalva Bartolomé, Paulino
16.	Pérez Quintana, José
17.	Simón Arruti, Toribio
18.	Sorondo Martínez, Domingo
19.	Sorozabal Esnaola, José
20.	Tulebras Pascual, Anastasio
21.	Ugarte Sánchez, José
22.	Ulacia Arcocha, Ramón
23.	Zabala Fernández, Millán
24.	Zubiarrain Zabaleta, José

Prensa oharra

Nota de prensa



Lotura politikoa:

3. Arrizabalaga Pildain, José - STV-ELA

6. Burutaran Ormazabal, Saturio (Auzo alkatea, Errepublikanoa EAJ/PNV)

11. Iglesias Ansaño, Luis (zinegotzia PSOE, UGT)

13. Martiarena Recondo, Ceferino (zinegotzia PSOE, UGT)

18. Sorondo Martínez, Domingo - UGT

22. Ulacia Arcocha, Ramón - UGT

24. Zubiarrain Zabaleta, José - CNT